

BEHI SAKRATUAK GAI XO

Birus batek hinduismoarentzat sakratuak diren behiak mehatxatzen ditu Indian

 **JENDARTEA** / Mikaela Viqueira (Efe)

Birus baten hedapena 150.000 behi baino gehiago hil ditu Indian eta kezka ere zabaldu egin da. Birusak larruazaleko gaixotasun bat sortzen du eta, tratamendu espezifikorik ez dagoenez hinduismoarentzat animalia sakratu hori nola mehatxatzen duen ikustean, askoren haserrea piztu da, batez ere nazionalismo erlijiosoa gora doan garai hauetan.

Irailean milaka hindu ortodoxo kalera atera ziren Rajasthan estatuan, behien bizia salbatzeko premiazko ekintzak eskatzeko, hiltegieta milaka behi hilda erakusten dituzten irudiak zabaldu ondoren.

Hinduisten iruditerian izaki amatiarra da behia eta barruan 330 milioi jainko dituela uste dute.

Protesta neurri handi batean Bharatiya Janata Party (BJP) alderdi nazionalista hinduko militanteek egin zuten; Narendra Modi Indiako lehen ministroaren alderdikoek, alegia.

Eta poliziarekin liskarretan bukatu zen manifestazioa.

Dermatosi nodular kutsakorren agerraldi bat izan da erruduna, eta 2 milioi behi baino gehiago kutsatu eta 150.000 baino gehiago hil ditu jada, Indiako Animalien eta Esnekien Hazkuntza Departamentuko komisario laguntzaileak, Sujit Nayakek, Eferi baieztatu zionez.

Gaixotasun horrek probirus bat eragiten du, eta endemikotzat jotzen da Afrikako hainbat eremutan. Behi-azienden heriotza eragin dezake, baina eragin handiena ugalkortasunaren eta esne ekoizpenaren murrizketarekin lotuta dago.

Behi-aziendetan larruazaleko gaixotasun bat sortzen duen birusa hedatu egin da Indian eta 150.000 behi baino gehiago hil ditu jada. Hinduismoak sakratutzat jotzen duen animalia hau gaixotzeak kezka eta haserrea eragin du, batez ere erlijioari lotutako nazionalismoak gora egin duen estatueta.

Gaixotasuna nodulu gisa agertzen da aberearen azalean, batez ere buruan, gorputz adarretan, errapetan eta genitaletan. Gerora, endekatu eta zauri sakonak eragiten ditu. Beste sektore batzuen artean, eltxoek kutsatzen di-

tuzte behiak, eurite garaian. Abeltzaintzako ondorioak larriak dira, batez ere ugalkortasuna eta esne ekoizpena gutxitzen delako, eta horixe da, hain zuzen, milaka familiaren ekonomiaren oinarria.

Indiako «sadhu»-ak behien birikiak erretzen, erritual hinduista batean. Prabat Kumar VERMA / EUROPA PRESS

Birusaren hedapena geldiarazteko txertorik ez dagoenez, osasun agintariek ahuntz txertoa eman zuten behin-behinean. Ahuntzei eta ardiei jartzen zaien txerto horren eraginkortasuna %80koa da, K. P. Singh Albaitaritza Ikerketako Institutuko (IVRI) zuzendari laguntzaileak azaldu zuenez.

Hala, «txertatutako behiak infektatzen badira, sintoma arinak besterik ez dute izango», eta denbora irabaziko da serum autoktono espezifiko bat garatu arte. Hori hiru edo sei hilabeteren buruan egongo litzateke prest, adituaren esanetan.

Singhek ohartarazi zuenez, «gaixotasun horri buruzko azterketa zehatza behar da»;



izan ere, orain arte dakitenarekin «ez da nahikoa» gizakiak edo beste animalia batzuk kutsa ditzakeen zehazteko, baina tratamendu egokia ematen bada eta behiei txertoa jartzen bazaie, heriotza tasa %5-10 artekoa dela ziurtatu zuen.

BEHIEN BABESLEKUAK

Gaitz honek beste behin ere agerian utzi du behiak hinduismoarentzat sakratuak izan arren, ez dituztela ondo zaintzen. Ohikoa da hezurra eta azala besterik ez duten behiak ikustea kalean edo errepideetako ibilgailuen artean, edo zaborretan bazkatzen.

Gizartea «ez da betetzen ari gure behi-ama babestu behar den moduan babesteko bete-beharra», eta behiak «noraeezan eta janari bila dabilta zaborrontzietan» azpimarratu zuen Prem Panditek, *gaushala* edo behien babesleku baten erdian dagoen tenplu hindu bateko apaiz nagusiak.

New Delhi hegoaldeko babeslekuak egunero jaten ematen die kaletik erreskatatutako edo erdialdetik hartutako 1.500 behiri baino gehiagori.

Izan ere, behiak sakrifika-tzea debekatuta dagoenez, esnea ekoizteari uzten diotenean familia indiarrek sarritan abandonatu egiten dituzte.

Aterpe horretako ia behi guztiek jaso dute ahuntz-txertoa, eta oraingoz ez dute dermatosi nodular kutsakorren agerraldirik izan, baina bada-kite oso larria dela zentroan agerraldi bat piztea, infek-tuak isolatzeko azpiegiturarik ez baitute.

Gutxi ulertzen dute India-ko animalia sakratuenaren bi-zitza zaintzeko bere gain hartu duen «ardura», «gainerakoak axolagabeak diren bitartean», deitoratu zuen apaizak.

BEHIEN BABESA ARAZO POLITIKO LARRIA BIHURTU DA



Behi bat zabortege batean, Guwahatin, Assam estatuan. David TALUKDAR / ZUMA WIRE / EUROPA PRESS

Jatorri ekonomikoa (esne ekoizpena, gorotzaren erabilpena sua egiteko...) izan dezeken behien adorazioa, azken finean, teologia bihurtu da hinduismoan eta beste erlijioetan ere.

Begetarianismoari eta indarkierik ezari lotuta izan da sarritan baina erlijio dogma izanik, askotan gatazka iturria izan da ere.

Adibidez, Indiaren independentziaren aldeko borrokan zipaioen matxinadaren jatorrian egon zen. Komunitateen arteko liskarren erdian ere izan da hain ikonikoa den behi sakratua. Indiako Konstituzioak behiak babesten ditu.

Abereak hiltzea baimenduta dago, baina oso murriztuta eta baldintza ugari bete behar dira. Estatu askotan soilik zezenak edo bufaloak hil daitezke eta inoiz ez behiak.

Narendra Modi lehen ministroaren BJP alderdi hinduista boterera iritsi zenetik areagotu egin dira erlijioaren inguruko aldarrikapenak eta baita ere

beste erlijioeko komunitatearekiko liskarrak, batez ere musulmanekin.

Eta nazionalismo hinduistaren ezaugarri bat behiaren adorazioa izanik, haren babesa jazarpenarako aitzakia bihurtu da.

Arazo politikoa bihurtu da askotan, batez ere BJPren gotorlekuetan. Esaterako, Rajastak Estatuan Behiaren Ministerioa sortu zuen. Eta behia babesteko Bhartiya Gau Raksha Dal bezalako talde erradikalak ere sortu dira. Askotan indarkeria erabiltzen du abeltzainen izua eraginez, beldur direlako behiak ukuiluetan ixteagatik edo ikutzeagatik ultrahinduistek eraso egingo dietela. Behien babesle horiek azken urteotan hamar pertsona inguru hil egin dituzte.

Indiako Epaitegi Gorenak behien babesari lotutako indarkeria mugatzeko lege bat eskatu zion Gobernuari baina Modiren alderdia Estatu horietako askotan boterean izanik inpunitatea da nagusi eta behien hilketa musulmanak

jazartzeko aitzakia da.

Gujaraten biziarteko espetxealdia eta 1.500 euro baino gehiagoko isuna ezarri zuen duela boste urte behiak hiltzeagatik. Hori baino lehen zazpi urteko espetxaldiko zigorra zegoen.

«Behien babesa mundu osoa degradazio moral eta espituraletik salbatzeko printzipio nagusia da», defendatu zuen Vijai Rupani Gobernu buruak. Hain zuzen Narendra Modi lehen ministroa Gujarateko Gobernu burua izan zen Indiako Gobernura iritsi baino lehen.

Aldi berean, Uttar Pradesh estatuan legez-kanpoko hiltegiak ixteko kanpaina bati ekin zion. Hiltegi horiek musulmanen esku daude eta baimenak lortzeko traba ugari daudela salatzen dute.

BJPren Gobernuak musulmanen haserre piztu zuen, haien bizibidearekin bukatzeaz gain, hinduistek haien garraioak eta etxeak ere erasotzen dituztelako. Milioika pertsona bizi dira harakintza edo larrugintzan, eta musulmanek, kristauak edo beheko kasten hinduek behikia jaten dute.

Gobernuak bestelako erabilpenerako behien salmenta eta garraioa ere murriztu egin zuen.

Baina Rajastanen edo Uttar Pradeshen ere, hain sakratuak izanik, larruazaleko birusa hedatu egin da, galera handiak sortuz.

Joan den abuztuan 3.000 behi hil ziren bi estatu hauetan gaixotasun hori zutela eta jabeek jaso ez duten laguntza espero zuten.

Gujaraten ugariak diren behi gaixotuen aterpeen jabeek behiak askatu zituzten protesta moduan laguntzarik ez zutelako jasotzen.

Gobernuak 5.000 milioi rupia (61 milioi dolar) ordainduko ziela agindu zien aterpeak mantentzeko. Manifestazioak ere egin zituzten «iruzurra» salatuz. Uttar Pradesh, Haryana, Madhya Pradesh, Uttarakhand eta Rajasthanen, berriz, laguntzak banatu zirela adierazi zuten.